

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko ekainak 3 · 1231. zenbakia

HIRUKOTE INGELESA EIBARKO BIZIAZ GOZATZEN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKi
ASEGURUAK
Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



osasun gida

Dentistak



arar
HortzKlinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
www.clinicadentalarar.com

UniverSalud
Mafuz, konpainia eta kolektibo handien fondutako zerbitzu

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Pérez Cuatrecasas

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6. bulego 943 206 044

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4. beheko esk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 684 808 www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidabarrieta, 7-1 esk. 843-702888

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
FISIOTERAPIA ZENTRUA

500 kolegiata etxea

- ENDOSTEREOTIPIA
- KINESIOTERAPIA
- Puntzio erara TRATAMENDUA
- A-terapia + TERAPIA MUSKULAR

ARRAQUETA, 20
Tfn. 943 53 06 42
www.aneclinfisio.com

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EQUINERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnos: 943 20 72 17

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerre Tel. 943 70 23 85

Ginekologia

Dra. Laura Martínez **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 85 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PACI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Irujo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850




943-206776

Jarraitu gaitzazu!



Gipuzkoako jubilatuen elkarteak antolatutako topaketa, Coliseo antzokian. Basotxo (Aretxabaleta), Abaroa (Arrasate), Untzaga (Eibar) eta Goiz Eguzki (Hernani) abesbatzek hartu zuten parte.



David Brooks, James North eta Stuart Davidson Ingalaterran jaio ziren, baina Eibar dute bizileku. Euren jaioterrian nolako den, zergatik etorri ziren, hemengo bizimodura nola egokitu diren eta beste hainbat kontu azaldu dizkigute ingelesezko irakasle hauek.



@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Eskerrik asko eskainitako laguntza guztiarengatik**

Zaporeak proiektutik egindako ekarpenak eta emandako laguntza eskertu nahi ditugu. Zuek denok posible egiten duzue gure proiektuak jarraitzea. Zuen laguntza oso garrantzitsua da milaka lagunek (haur, gizon eta emakumeek) elikagai duina jasotzeko Europar "euren ametsaren" zain soro eta asentamenduetan itxaroten duten bitartean.

Lesbosen "atxilotuta" daudenen beharrak eta egoera oso larriak dira, gure proiektuaren elkarlana eta existentzia oso beharrezko bihurtuz gaur egun ere euren guztien egoera hobetzeko. Zaila eta neketsua da denboran gurea bezalako proiektu bati eustea; baina, zuei denoi esker, aurrera egiten jarraitu ahal izango dugu eta Grezian harrapatuta dauden guztientzat janari duina bermatzen dihardugu, erabateko abandonu egoerari aurre eginez. Zuen inplikazioa garrantzitsua da benetan. Eskerrik asko.

Badakigu eguna iristen den momentuan Ermua, Eibar, Elgoibar, Mallabia, Deba eta Soroluzetik zuetako bakoitzak dena emango duzuela kanpainan eta behar den guztia mobilizatuko duzuela Lesbosen gizartearen berotasuna eta kariñoa senti dezaten. Ez dugu ahazten Ermua eta Eibarraren artean hasi zela erronka, eta gero eta herri gehiagok bat egiten dutela erronka solidarioarekin.

Eskerrik asko Zaporeak posible egiteagatik eta Kara Tepeko Errefuxiatu Kanpamenduko errefuxiatuei duintasuna berreskuratze bidean jarraitzen laguntzeagatik.

2022ko otsailetik Zaporeak-ek Onura Publikoko elkarte titulua dauka; hori dela-eta, egiten duzuen dohaintzan %20ko beherapena izango duzue. Horrez gain, zuen kolaborazioa errazteko bidean, hemendik gutxira aukera izango duzue bazkide egin eta Greziako errefuxiatu-kanpalekuetako migrantei laguntzen jarraitzeko.

Kutxabank: ES14 2095 5092 00 9115250322

Laboral Kutxa: ES71 3035 0103 88 1030035880

Bizum: 00435

Informazio gehiagorako: www.zaporeak.eus/

666957853

Zaporeak

UGAN klubeko ibilbidea amaitu da

Aurreko maiatzaren 5ean 22. urteurrena bete genuen eta azkena izango da. 2000. urtean hasitako abentura nahi baino lehenago bukatu zaigu Covid-aren eraginez.

Urte politikak izan dira: lan asko, izerdi ugari, malko batzuk ere, ehundaka lagun berri... Merezki izan du, dudarik gabe.

Maiatzaren 27an Ugan-eko ateak itxi ditugu; lagun askoren eguneroko edo asteroko zita ezin izango da gehiago errepikatu, behintzat gurean.

Eskerrik asko Ugan Klub-eko partaide izan zaretenoi: amets bat egia bihurtzen lagundu diguzue. Eta esker mila, nola ez, Ugan-en lanean aritu zareten guztiei; Maitena, David, Naiara, Ander... zuek izan zarete gure altxorra.

Besarkada estua eta nahi duzuenara arte!

UGAN Klubeko Zuzendaritza
(Igor, Iñaki eta Julio)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OILLAR-JOKUA → Oilar burruka. "Oillar-jokuan diru asko jokatzen zan sasoi baten".

OILLARTU → Oilarra bezela, harropuztuta jarri, harrotu. "Irabazi dittuan jokuekin, oillartuta dabill".

1967

Sari banaketa Garate drogerian

Arragueta kaleko 17an egon zen Garate drogerian Plazaolak ateratako argazkia, Norit etxeak bezeroen artean egindako zozketaren harira: atzean, Maria Larrañaga. Aurrean, eskumatik hasita, Agapita Larrañaga, Maria Jesus Garate eta Alfa josteko makina irabazi zuen Jesusa (Elgoibarko Akei baserrikoa).



Farmaziak

BARIXAKUA 3
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 4
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 6
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 7
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 19)
EGUAZTENA 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 10
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Antonio Gomez Besteiro**. 69 urte. 2022-05-25.
- **Jose Maria Uria Olabarria**. 81 urte. 2022-05-26.
- **Maria Carmen Gallardo Sanchez**. 66 urte. 2022-05-26.
- **Laurentzi Murgizu Zabala**. 89 urte. 2022-05-26.
- **Maria Luz Peña Puente**. 73 urte. 2022-05-29.
- **Ana Maria Aldazabal Guridi**. 98 urte. 2022-05-29.

Jaiotakoak

- **Barae Hihoud**. 2022-05-6.
- **Libe Castro Araujo**. 2022-05-22.
- **Julen Muniozguren Aparicio**. 2022-05-23.
- **Enar Laci**. 2022-05-24.



Aurreko asteko egunean aurkeztu zuten T. Echevarria sarien 32. edizioa. SILBIA HERNANDEZ

Enpresa eta ekimen berriak sustatzeko Toribio Echevarria sariak martxan

Aurreko astean aurkeztu zuten Toribio Echevarria sarien 32. edizioa Jon Iraola alkateak, Marisa Arriola BIC Gipuzkoa erakundearen zuzendari kudeatzaileak eta Ana Telleria Udaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza saileko zinegotziak. Edizio honetarako hautagaitzak aurkezteko epea ekainaren 20an amaituko da. Lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak www.toribioechevarria.com sarien webgunean kontsulta daitezke.

Euskadiko enpresa-ekimenak aitortzeko eta ekintzaileei beren jarduera-hasieran laguntzeko sarien berri emateko ekitaldian azaldu zuten, hautagaitzak Euskal Autonomia Erkidegoko startup eta enpresa-proiektuei zuzenduta daude, berrikuntza zientifiko-teknologikoan arreta berezia jarritz.

Toribio Echevarria sarien deialdia bi kategoriatan banatzen da: “Enpresa-ideiak/

Enpresa-ideiak eta enpresa berriak atalak bereiziko dituzte edizio honetan ere

proiektuak” eta “Enpresa berria”. Haietako bakoitzak 10.500 euroko sariaz gain, aukera ematen du laguntza-, finantzaketa-, aholkularitza-, mentoretza- eta formazio-programetan parte hartzeko. Horiez gain, sari bat dago nazioartekotze-bidean laguntza behar duten enpresa-ekimenetara bideratua eta beste bi sari berezi, Eibarko Udalak ematen dituenak.

Sari bereziak Eibarren kokatutako enpresa eta proiektuentzat

Toribio Echevarria sarien azken hiru edizioetan, Eibarko Udalak bi sari berezi eman ditu, “Eibarko enpresa” eta “Especializazio estrategikoa” izenekoak, herrian berrikuntza eta ekintzailtza teknologikoa indartzeko helburuz. Bi sari hauek 10.500 euroko zenbatekoa dute bakoitzak eta baita BIC Gipuzkoa erakundearen bidez formazio espezializatua jasotzeko aukera ere.

Bi kasuotan, exijitzen den baldintza da enpresak Eibarren edukitzea bere egoitza edo konpromisoa hartzea saria ematen denetik urtebeteko epean Eibarren jarraitzeko, bi urteko epe batean gutxienez.

“Eibarko enpresa” saria, berriz, beste bi kategorietako edozeinetan aurkeztutako hautagaitza bati emango zaio; irizpidea izango da kalitate eta berrikuntza maila handia eskaintzea eta merkatuari balio-proposamen bat egitea, bai eta inbertsioa eta enplegua sortzeko ahalmena izatea ere.

“Especializazio estrategikoa” sariaren kasuan, kirolaren alorrean kokatutako egitasmoak lehenetsiko dira; nolahi ere, beste arlo estrategiko batzuk ere aintzat hartuko dira, hala nola energia eta manufaktura aurreratua, bereziki, mikrodoitasun-mekanika eta robotika.

AUTUAN

EIBARKO ZARATA-MAPA BERRIAREN AURKEZPENA EGINGO DU UDALAK ASTELEHENEAN

Udalak udalerriko zarata-mapa egin du, Euskal Autonomia Erki-degoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoa betez. Horrela, astelehenean, 18:00etan, Udaletxeko pleno aretoan, herritarrei zarataren mapa eguneratzeko lortutako emaitzen berri emateko jardunaldi irekia egingo da.



EKAINAREN 11-TIK AUERRERA EGONGO DA KANPOKO IGERILEKURA JOATEKO AUKERA

Ekainaren 11n zabalduko dute kanpoko igerilekua eta uda osoan, irailaren 11ra arte, egunero erabili ahal izango da zerbitzua. Ekainean eta uztailean 10:30etik 20:30era zabalduko dute igerilekua eta abuztuaren 1etik aurrera, berriz, 10:30etik 20:00etara. Eibarko Kirol Patronatutik gogorarazi dutenez, kanpoko igerilekurako abonoak daude. Bestalde, umeen igeriketa ikastaroetarako aurreinskripzioa ekainaren 2tik 19ra egin ahal izango da. Zozketa ekainaren 20an egingo dute eta inskripzioak, berriz, hilaren 29an hasiko dira.



Gaurtik hasita domekara bitartean ospatuko dira jaiak Urki auzoan

Eguaztenean aurkeztu zituzten Urkiko jaiak auzoko jai-batzordekoek, Aterpe elkartearen egindako prentsaurrekoan. Bertan Jon Iraola alkatea eta Udaleko alderdi politikoetako ordezkarien eta herriko beste auzoetako jai-batzordeetako ordezkarien babesa izan zuten antolatzaileek. Esan zuteneguz, pandemiaren ostean berriz ere hutsetik hasi beharra “oso gogorra” izan da, baina, oztopoak oztopo, asteburu osorako egitaraua prestatu dute, “nahiz eta gauzaren bat edo beste” kendu behar izan duten.

Izan ere, “azken urteak denontzat gogorrak” izan direla eta, auzokideei dirurik ez eskatzea erabaki dute. Alde horretatik eskerrak eman dizkiote Udalari, “jaiak antolatu ahal izateko emandako laguntzarengatik”, baita dohaintza bidez laguntza ematen ari diren auzokoei ere. Jaiak antolatzea geroz eta zailagoa ikusten dutela ere nabarmendu zuten jai-batzordeko kideek: “Lau lagun baino ez gara eta, erreleborik egon ezean, jaiak gaur egun ospatzen ditugun moduan antolatzetik ez dago”.

Jubilatu elkartearen abesbatzen bideoak gure YouTuben ikus daitezke

Agijupens Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartearen eskutik, aurreko astean abesbatzen topaketa egin zen Coliseon. Untzagakoarekin batera, Aretxabaleta, Arrasate eta Hernaniko jubilatu elkartearen abesbatzak aritu ziren kantuan. Bideoak gure YouTuben daude.





Berdegune eta paseatzeko gune gehiago eskatu dizkiote Udalari herriko ikasleek

Urtero egiten den Eskola Agenda 30eko udalbatzarra egin dute aurtenera Eibarko ikasleek. Aurtengo ikasturtean “Lehorreko Bizitza” gaia landu dute ikasleek Egitasmo hau aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du eta ikastetxeek Eibarko Udalaren, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen, Ingurugelaren eta Debegesa Garapen Agentziaren laguntza dute. Urtean zehar gaia lantzeko hainbat ekintza burutu dituzte ikastetxeetan. Behin egorearen diagnostikoa eginda, ikasleek Udalbatzarrean, aurtenera bideo

bidez, aurkeztu dituzte ateratako ondorioak, baita euren eskaera eta proposamenak ere, hiri jasangarri bat eraikitze aldera.

Ikasleek ere hainbat konpromiso hartu dituzte. Eskaeren artean hauek nabarmendu daitezke: Udalak hileroko irteerak antolatzea, ingurua garbitzeko eta hobeto eza-gutzeko; Baso Biziak taldearekin elkarlana bultzatzea; parke berde gehiago eta paseatzeko lekuak sortzea; Udalak lurra erostea eta bertako zuhaitzak landatzea; eta eukalipto landaketen moratoria-ren mozioa onartzea.

Tabakismoaren kontrako panelak ipiniko dituzte herriko hainbat gunetan

Tabakorik Gabeko Nazioarteko Egunaren harira, Udalak “Kerik gabeko herriak” izeneko kanpainarekin bat egin du. Horrela, tabakismoaren aurkako panelak jarriko ditu Errebalgo plazan, Urkizuko parkean eta Zuloagatarren parkean, “umeentzako tokiak izateagatik edo osasun-zentro baten

ondan egoteagatik”. Panelak faroletan eta beste euskarri batzuetan jarriko dituzte, toki horiek kerik gabeko guneak direla adierazteko. Hala ere, ez da erretzea debekatuko.

Kartekek QR kodea izango dute, kanpainari buruzko informazio gehiago ikusi nahi dutenentzat.

Teknikerreko 280 langileei KPIko igoera aplikatzea agindu du Auzitegiak

Eibarko Lan Arloko Auzitegiak, argitaratu berri duen epaian zehaztu duenez, Tekniker Zentro Teknologikoko 280 langileei KPIko igoera aplikatuko zaie soldatetan, Gipuzkoako metalgintzako hitzarmenak jasotzen duena betearazita. LAB sindikatuak aste honetan jakinarazi duenez, Teknikerren ordezkariak duten sail sindikalek (LABeko 9 kide eta ELAko 4) salaketa sartu zuten, “Teknikerreko lan hitzarmena ultraaktibitatean egonda, enpresak ez zuelako Gipuzkoako metalgintzako hitzarmenaren adostutako KPIren igoera aplikatu nahi.

LABentzat beste hainbat enpresetan aplikagarri den epai garrantzitsu eta pozgarria da ezagutu berri duguna, sektore hitzarmenaren babesa indartzen duelako”.



Euskal Eskola Publikoaren jaia ospatuko da Bastidan

Domekan ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren 29. jaia Bastidan, hiru urteko etena eta gero. Aste honetan aurkeztu dute jaia, Gasteizko Arte Ederren Museoa. Lurdes Imaz EHIGeko koordinatzaileak gogorazi duenez, “eskola publikoa aldarrikatzea, jai giro batean” da helburua.



Goi Argiren Gabonetako Tonbola. Besteak beste, Mercedes Kareaga eta Carmen Apellaniz. GANTXEGI-JUARISTI FUNTSA (EGO IBARRA)

Carmenentzat Goi Argi emakume elkarteak "bizimodu zuzena" nola eraman eskaini zion herriari. Etxe askotara elkarteak bizipoza eraman zuen, emakumeentzat ez zegoelako aisialdirako ezer garai batean. Bazkideen bikoteak urtean behin bakarrik sar zitezkeen.

Goi Argi elkartearen urtean behin sartzen ziren gizonak

Carmen Apellaniz Aizpitarte
(1931)



Carmen Apellaniz Aizpitarte 1931n jaio zen Eibarren. Aita garraiolaria zen eta ama etxeko andrea; lau seme-alaba izan zituzten. Gerra aurretik Arraindi kalean bizi ziren, baina bonbardeaketek kalea suntsitu ondoren, Bidebarrietara joan ziren. Carmenek, Mercedes Kareagarekin eta Tere Gantxegirekin batera, Goi-Argi emakumeen elkartearen sortu zuen 1951n.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin zen elkarrizketa

Carmen Apellanizi grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Zer eskaini detsa Goi Argi Eibarri, holan, berba potoluekin?] Ba, bizimodu zuzena. Bizimodu zuzena, nik usten dot, Mercedes bizi zanian. Oin jokuan egitten dogu, besterik ez, baiña, bueno, bale, baiña orduan bai. Bizimodu zuzena ta, ez dakit, nik usten dot, "la alegría". Bai, bai, bai. Esaten eben batzuek, gizonetzkuak, eh! "Mi mujer ha cambiado, está mejor. Mi mujer está bien, está bien" (...) Ta, gaiñera, pozik eguazen gizon askuak, andrazkuak hona etortzen ziranian. Orduan ez eguan besterik Eibarren, ez eguan oingo moduan hainbeste gauza (...) Gizonak bai, pilla bat soziedade, eta, gaiñera, debekatuta andria sartzia (...). [Gizonezkuak be debekatuta euki dabe hona sartzia?] Beti. Eukitzen genduan egun bat, uno para los novios y para los maridos. Ta egitten genduan jai bat. Ta eguan una solterona, nere moduan, una soltera que no tenía pareja, ta etortzen zan con un maniquí, ipintzen zeban hala...

57. Euskal Jaia Eibarren

Eibarko Klub Deportiboaren eskutik, Eibarko Euskal Jaiaren 57. edizioak bete du maiatzeko azken asteburua. Barixakutik domekara bitartean denetarik izan dugu: jolasak, kontzertuak, azoka, herri-kirolak, herri-afari eta bazkariak, kalejirak, euskal dantzak... Eguraldia lagun, giro aparta egon zen antolatutako ekitaldi guztietan.

BIDEOAK IKUSTEKO





Askatasunerako bidea argitu

Uztailaren 2an Pirinioetako 300 gailurretik gora argiztatuko dituzte 'Pirinioetako Bidea' egitasmoaren bitartez. Katalanak eta euskal herritarrok bat eginda, batzen gaituen mendilerroa argiz beteko dugu herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. Euskaldunok 100 gailur inguru argiztatu beharko ditugu eta eibartarroi Kokori mendia egokitu zaigu.

Informazio
gehiago:



Josu Etxaburu Gure Esku egitasmoa zuzendaritzako kideak eguaztenean Topalekuan egin zen aurkezpenean adierazi zuen bezala, “uztailaren 2an mugarri garrantzitsua ezarriko dugu burujabetzarako bidean”. Izan ere, bere berbekin jarraituz, “handira jartzen garenean, handira jartzen gara”. Eta ez da motz gelditzen, Pirinioetako 300 gailur baino gehiago argiztatzea delako asmoa. “3.000 metroko altuera duten mendiak daude tartean, baina erronka honek 8.000 metroko mendiak igotzea baino gehiago eskatzen du, autodeterminazio eskubidea lortu nahi baitugu”.

Ekimen ikusgarria izango da eta, horren bitartez, Europari adierazpen garbia egin nahi diote, besteak beste: “Herritarren borondate defendatzea, ez gehiago ez gutxiago”, Etxabururen berbetan.

Gure Eskuko zuzendaritzako kideak esan bezala, Europan gauzak mugitzen ari dira, eta Eusko Ikas-

kuntzak eta Institut d'Estudis Catalansek martxak jarritako 'Subiranotasunaren lurralde-gatazkak konpontzeko jardunbide egokien kodea' eta Europar Batasuneko alderdi subiranistek abiatutako 'Selfe Determination Caucus'-a jarri zituen adibide. “Ez dakigu noiz eman go duten emaitza, baina mugitzen dabilta”, aipatu zuen. Eta mugitzen direnerako, euskaldunok prest egon behar garela aipatu zuen: “2014an, Eskozian erreferenduma egin zenean, Zurriolan geunden mosaiko bat egiten. Ondo dago, baina autodeterminazioaren hurrengo olatua datorrenean non egongo gara? Ezin gara esperoan gelditu. Inork ez digu ezer emango, guk lortu behar dugu”, zehaztu zuen.

Herriaren gogoia berriz piztu

Horregatik 'Pirinioetako Bidea' egitasmoaren garrantzia. Ez bakarrik, Etxaburuk esan bezala, 'turista subiranista' kontzeptua atzean lagatzeko eta euskaldunok gure bide propioa



Pirinioetako 300 gailurretik gora argizatzea da 'Pirinioetako Bidea' egitasmoaren nahia. GURE ESKU DAGO

egiteko, baizik eta "herriaren gogoa berriz pizteko", bere berbetan. "100 gailur argiztatu baino, 200 herri aktibatu nahi ditugu, burujabetzarako prozesu bat abiatzeko".

Pandemiaren bi urteak zailakizan direla aitortu zuen Etxaburuk eta Gure Esku kalean egon ez izanak kalte egin diela. Beraz, handira jarri dira, lortu nahi duten helburua handia baita.

Gauzak horrela, baikor eta gogotsu ekin diote ekimenari, horrek ekarriko duenak Gure Eskuren nahiak hauspotuko dituelakoan. "Erabakitzea inoiz ez da gatazka iturri; erabakitzea ukatzea, aldiz, bai. Espainiako eta Frantziako estatuek gatazka demokratiko bat eragin dute. Arazoa ez dago Katalunian edo Euskal Herrian, arazoa estatuena da", Etxabururen berbetan.

Gure Eskuren iritziz "herriari hitza emateko sasoia da" eta, era berean, herriak hitza hartzekoa. "Erabakitze eskubidea lege bihurtzeko unea da", Etxabururen us-

tez, eta horrelako ekintzek bide horretan laguntzea espero du. "Gure Esku 2013an sortu zen eta, Gure Esku zenbat eta lehenago desagertu, hobe, helburua lortu dugulako izango delako", gehitu zuen. Helburua, batez ere, herriaren burujabetza erreferendum bitartez erabakitzea izango litzateke.

Katalunia eta Euskal Herria batera

Kataluniako eta Euskal Herriko entitate sozialek elkarlanean antolatu duten egitasmoa da 'Pirinioetako Bidea'. Orain arte esploratu ez duten bidea da, baina Etxaburuk esan bezala, "gure nahiak partekatuak badira, partekatu dezagun bidea ere".

Gure Eskurekin batera ANC (Assemblea Nacional Catalana), Omnium Cultural, FEEC (Federacio d'Entitats Excursionistes de Catalunya) eta Artistes de la Republica egitasmoek dihardute lanean 'Pirinioetako Bidea'-ren antolakuntzan. "Izerdia botatzen ari gara bide honetan, baina batera joateak merezi

>>> Kataluniako eta Euskal Herriko entitate sozialek elkarlanean antolatu duten egitasmoa da 'Pirinioetako Bidea'



Josu Etxaburu Gure Eskuko zuzendaritzako kideak egitasmoaren aurkezpena egin zuen eguaztenean Topalekuan. EKHI BELAR

>>> "Herriari hitza emateko sasoia da. Erabakitzeko eskubidea lege bihurtzeko unea da"

du", azpimarratu zuen Etxaburuk. "Kataluniako proces-a babesteko euskaldunok elkartasuna adierazi genien kalean, baina orain elkarlana pasatzeko ordua zen. Roger Torrenti Gasteizen entzun nion bezala: 'estatuari bretxa bat zabaltzeko'".

Katalanek zein euskaldunok, gainera, esperientzia dugu horrelako ekintzetan. Izan ere, 2019an 'Llum i llibertat' egitasmoa gauzatu zuten Montserrateko 131 orratz argizatuz, eta urte berean, 'Argi dugu bidea' lelopean, Euskal Herriko zenbait menditan (Aiako harriak, Txindoki, Anboto...) erreplikak egin ziren.

Eibartarrak Kokori mendian

Aipatu dugun bezala, 'Pirinioetako Bidea' egitasmoak mezu garrantzitsua du atzean, baina ondo pasatzeko aukera ere izango da: lagun artean mendira joan, Pirinioez gozatu, ekimen bateratuan parte hartu... Erronka kolektibo eta parte-hartzaile erraldoia izango da eta,

mendizale trebatua edo hasiberria izan, herritar guztiek parte hartzeko moduko ekimena izango da. Gainera, Pirinioetara joateko aukera ez dutenek ekimenarekin bat egin dezaten, herrian ekintzak egiteko asmoa dago.

Mendiak bi mailatan banatu dituzte, ezaugarrien arabera: mendi mugatuak (gorriak) eta eskuragarriak (berdeak). Ekimenaren webgunearen bitartez (viapirenaica.cat) parte-hartzaile bakoitzak zein menditara joan nahi duen aukeratu ahal du eta antolatzaileek izena ematearen garrantzia azpimarratu nahi dute, antolakuntza hobeagoa bermatzeko eta parte-hartzaileei beharrezko informazioa emateko. "Mendi bakoitzeko arduraduna nor den esango zaie eta, edozein gauza gertatzen bada, arazoak konpontzeko errazagoa izango da", antolatzaileek diotenez.

Jendea libre da nahi duen mendira joateko, baina gauzak hobeto antolatzeko bidean, herri bakoitzari

>>> "100 gailur argiztatu baino, 200 herri aktibatu nahi ditugu, burujabetzarako prozesu bat abiatzeko"

mendi bat egokitu zaio. Horrela, eibartarrok, Soralezuekin batera (eta Debakoekin agian), Kokori mendia argiztatzeko ardura izango dugu, Etxalar inguruan. Mendiak 723 metro ditu eta 2 kilometro inguruko bidea egin behar da gailurreraino. Dena dela, parte-hartzaille guztiak ez dira gailurrera iritsi behar, bidea ere argiztatu behar delako.

Gure Eskuk doako autobusak jarriko ditu Eibartik 18:30ak inguruan (Soralezetik 18:00etan) eta 20:00ak inguruan iritsiko dira Etxalarera. Han mokadutxoa jateko aukera egongo da Kokorira igo aurretik. Mendiak 22:00etan argiztatuko dira eta gero, ekimena amaitu ondoren, autobusak 00:00ak inguruan irtengo dira Eibarrerantz. Federatu gabeko parte-hartzaileek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuek 5 euro.

Mendi bakoitzean asko argitzen duen faroltxo bat eramango dute parte-hartzaileek, baina gomen-



Ekimenaren kamisetak salgai daude gaur eta bihar Topalekuan. EKHI BELAR

dagarria izango da bakoitzak argiren bat eramatea, iluntzen duenean jaisten laguntzeko batez ere.

Izena eman ahal izateko, izena eman.gureesku.eus webgunean erraz egin daiteke, eta bestela, gaur eta bihar, 18:00etatik 20:00etara, ekimenaren antolatzaileak Topalekuan egongo dira egitasmoaren berri emateko. Gainera, hilaren 8an, 15ean eta 22an Deporren egongo dira baita ere, edozeinek informazio gehiago behar badu edo izena emateko.

Eibarko arduradunek esan bezala, dagoeneko hainbat lagunek eman dute izena. Batzuk autobusean joango dira, beste batzuek ostatua hartuko dute Etxalar inguruan, eta ziurrenik beste askok azken momentura arte itxarongo dute izena emateko. Baina, esan bezala, mugarrria ezarriko duen ekintza honek herriaren babesa behar duela diote eta esaldi honekin amaitu zuten eguazteneko aurkezpena: "Argiztatu dezagun askatasunerako bidea, eta batez ere libre".

Esperientzia Eskolako klaseak amaitu dira

Erretiro aurreko etapan edota erretiroan dauden 50 urtetik gorako gizon-emakumeak elkartzeko asmoz abiatu zen Debabarreneko Esperientzia Eskolak beste kurso bati agur esan dio. Edozein eskolara joanez gero, horrelako ekitaldietan ikasleek diploma hartu eta oporretan pozarren joatea izaten da ohikoena. Esperientzia Eskolan, baina, ez da hala gertatzen, ikasle guztiek kurtsua errepikatzea eskatzen dute-eta. Zergatik ote?



Barixakuan agurtu zuten ikasturtea Debabarreneko Esperientzia Eskolaren XVII. promozio-ko ikasleek. Ermua, Elgoibar, Ondarroa eta Eibarko 25 ikasle egon dira kurtsu honetan eta ikasturte amaierako ekitaldian diploma bana jaso zuten Jon Iraola alkatearen eta Patxi Mutiloa Ikasten elkarteko presidentearen eskutik. Aurretik, baina, Aitor Alberdi Ikasteneko kideak aurkeztuta, 17. promozio-ko bi ikasleek, Jorge Iturricastillok eta Esther Sagarduyk, beraien esperientzia aberasgarria azaldu zieten Armeria Eskolako areto nagusian bildutakoei.

Jon Mirande poetaren “Zergatik” olerkia gogora ekarrita hasi zen berbetan Iturricastillo: “Zergatik ikasi/ ahanzteko? gero/ ikasiak oro? Mirande jaunak ez daki, antzik eman ere, zein ederki pasatu dugun Ikasten elkartearen eskutik jaso dugun ikastaro honetan. Aktibo izaten, ikasiz gozaten, pentsatzearen garrantzia atzematzen, eztabaidatuz ikasten eta albo-koa errespetatzen erakutsi digun ikastaro zoragarria. Gutariko askorentzat akuilu pizgarria izan da, goizean goiz jaikitzeke, ilusioz. Kuriositatez eta gogoz oheratzerakoan zer ezagutza berri daramagun gure zorrotxoan, gure motxilan, ez baita komeni oheratzea gauza berririk ikasi gabe. Luzapenak, nutrizioa, mindfulness, transgenero mundua, astronomia, filosofia, historia,



Ermua, Elgoibar, Ondarroa eta Eibarko 25 ikasle, 23 andra eta 2 gizon egon dira Esperientzia Eskolako ikasturte honetan parte hartzen eta guztiak pozarren daude bizi izandako esperientziarekin. SILBIA HERNANDEZ

musika, artea, literatura. Gai ugari, asko guretzat ezezagunak, beste asko kanpaien soinua gure belarrietan. Baina gai guztiek bete dute bere txokoa gure garunetan. Izan ere, jakintzak ez du lekurik okupatzen, baina haren faltak hutsune galanta eragiten du”.

Balorazioa egiterakoan, ikasleei adjetiboen hiztegia murrizta geratu zaiela ere esan zuen, baina bizi izandako esperientzia esaldi bakar batean laburbildu zuen Iturricastillok: “Eibarko euskeran esango genukeen moduan, marabillosua”.

Kurtsoa amaitu duten ikasle guztien izenean, eskerrak eman zizkion Eva Pérez de Albeniz koordinatzaileari: “Eskerrik asko Eva, benetako meritua daukazu gure moduko artapalo talde ezberdiña gainera hain ederto bideratzeagatik”.

Berriketan Ikasi

Ekitaldia agurtu aurretik Esperientzia Eskolako aurtengo proiektua, “Berriketan ikasi” izenekoa aurkeztu zuten. Sagarduyk egin zuen aurkezpenean esandakoaren arabera, “proiektu honen bidez, tertulia gune bat sortu nahi dugu, gure intereseko gaietara buruz eztabaidatzeko. Helburuak hauek dira: gure ezagutzak zabaltzea; iritzi desberdinak errespetuz entzuten ikastea; gure buruak irekitzea eta beste pertsona batzuen ekarpenekin aberastea; entzute aktiboa sustatzea; gure sinapsi neuronalak erraztea, ikuspegi berrietara irekiz; ezagutza objektibotik espiritu kritikoa sustatzea; presiorik gabe ikastea; eta gozatuz sozializatzea”. Ikasten elkartearen bitartez datorren ikasturtean ipiniko dute martxan jarduera berri hau.

**Kurtso berrirako
izen-ematea
herri bakoitzeko
Udalean edo online,
www.ikasten.info
helbidean egin
daiteke.**



ENEKO SANCHEZ

Lasai gaude baina

Covid garaiak guda garaiari eman dio lekukoa. Nik espekulatzailen garai oparoa besterik ez dut ikusten. Gure eroste-ahalmena geroz eta murriztagoa da. Gogora dezagun, gure soldatetako KPIaren (erderazko IPC) igoera, azken urteko eroste-ahalmena errekuiperatzeko besterik ez dela, eta hilabeteetako atzerapenarekin etortzen da, etortzen bada... Hau gutxi ez eta osasun publikoaren kalitatea ere behera doa nabarmen. Urtean zehar gure hainbat ezagun ere ikusi ditugu greban edo protestan euren lan baldintzak duintzeko bidean. Bitartean, lasai gabiltza, oporrak prestatzen. Batzuei, ondokoa okerrago dagoela ikusteak, bere ongizatea indartzen diela dirudi.

Dena den, bada jende multzo bat, astelehenak bere egiten dituen, eta goian aipatutakoak haizeratu eta horiengatik protestan ibiltzen direnak. Pentsiodunak dira. Ez dugu ahaztu behar, beraien gazte garaiko hamaika ekintzengatik dauzkagula gaur egun ditugun hainbat eskubide eta baldintza. Agian, gure mobilizaziorako arrazoiren bat falta badugu, adibidetzat har genitzake gure nagusiak. Guregatik ez bada, egin dezagun ondorengoengatik, baino egin dezagun zerbait, berandu baino lehen... Bitartean, erregaia 2 eurotan, oliba olioia 4tan, osakidetzako itxaron zerrendak mugagabeak, lan baldintza prekarioak inguruan... Poliki-poliki bada ere, hasi beharko dugu ba zer edo zer aldatzen, ala?

"Gure mobilizaziorako arrazoiren bat falta badugu, adibidetzat har genitzake gure nagusiak"



MODA
ETA
EDERTASUNA

2022/06/03

2021/05/12



Gozatu modarekin!!!

BALORATU DAUKAGUNA

Zenbat eta gauza gehiago izan armairuan, orduan eta okerragoa da: ez ditugu arropak ikusiko, konbinazio gutxiago bururatuko zaizkigu eta, ondorioz, erosi dugun azkenarekin joango gara beti. Garbiketa egin eta ondo pentsatu urtetan gordeta ditugun arropak berriro jantziko ditugun, bere garaian asko gustatu arren. Edo agian arropa horiek bizitza berri bat merezi dute armairu berri batean. Konturatuko gara arropa batzuk ez genituela behar adina baloratzen gauza gehiegi edukitzeagatik. Gainera, armairua murrizteak gure estiloa definitzen lagunduko digu.

MODA JASANGARRIA

Gure ohituetatik abiatuta, moda justuagoa eta kontzienteagoa susta daiteke: jantziei ukitu pertsonala eman ahal diegu eta haien balio-bizitza luzatu. Etxean daukagun arropa askoren oihala erabil dezakegu arropa berriak egiteko. Arropa ez dago baztertzeko moduan. Bestetik, bigarren eskuko dendak oso aukera ekologikoa dira, erabilitako jantzi bat eroste hutsarekin karbono-isuriaren %80 aurrezten baita. Aukera bat kalitatezko

materialez egindako jantziak dira, iraunkorrak, kimikorik gabekoak, fabrikazio-prozesuan ura bezalako baliabideen erabilera optimizatu dutenak eta biodegradagarriak izan daitezkeenak, behin bizitza erabilgarria amaituta, suntsitze-prozesuan hondakinak sortzen jarrai ez dezaten.

ZER KOLORE DATOZ 2022KO UDARAKO?

Larrosa beroetatik, fuksiaren erabilera handiarekin, laranja, horiak, berdeak eta zuriak. Eta jakina, konbinazio zuria eta beltza eta beig tonuak lotura gisa.



BRILLOAK NAGUSI

Lihoa edo kotoia baino haratago, oporraldi hauek aukera paregabea dira argi propioarekin distiratzeko, eta lentejuelek une berezietan protagonismo handia hartuko dute.





CASTAÑO Ilepaindegia

“Ileordekoetan aukera zabala eskaintzen dugu”

Helbidea: Calbeton 1 - 1 ezk. **Telefonoa:** 943 20 70 47
Emaila: indatxema@hotmail.com **Facebook:** Castaño Peluqueros **Instagram:** castanopeluqueros

Ileorde, ile-eranskin eta luzapenen zerbitzua modu intimo eta pertsonalean eskaintzeko espazioa aurkituko duzue Txema Inda Castañok Calbeton kalean duen CASTAÑO ilepaindegian.

Estilo, kolore eta material anitzeko ileordeak eskaintzen dituzte: ile naturalarekin egingakoak, zuntzezkoak eta zuntza eta ile naturalaren nahasketa daramatenak. Protesi edo postizo partzialak ere badituzte. Prezio desberdinetakoak daude, batzuk oso ekonomikoak, eta beste batzuk oso gama altukoak, denak kalitate onekoak. Aldatzen dena detaileak dira, pertsona bakoitzak bere beharrak asetzeko aukeratuko dituenak. Gainera, osagarriak (turbanteak, zapiak, koleteroak, luzapenak, melenentzako postizoak, flekilloak...) eta produktu espezifikoak dituzte (txanpuak, ile-egokitzaileak...). "Espezialitate honek atenzio desberdina eskatzen du, zerbitzu honen bila datozen pertsonak beste behar batzuk dituztelako. Detaile asko zaindu behar dira, eta horretarako prestatu gara", dio Txemak.





KONTUZ GALTZA-AZPIAREKIN

Zure zapatilei ahalik eta etekin handiena atera nahi badiezu, baina baita zure siluetari ere, kontuan hartu behar duzu zein praka mota erabiltzen ari zaren, eta behar bezala erabili. Praka hanka zabalekoa edo kanpaia denean, ez da ezer gertatzen oinetakoak erabat estaltzen direlako. Baina ‘mom’ edo ‘boyfriends jeans’, ‘Flare’ edo ‘skinny’, kasu horietan, hobe da beti orkatila pixka bat agerian uztea. Modu horretan, zure hankaren zati bat estilizatzea lortuko duzu.



ILE-MOZKETAREN GARRANTZIA

Ilea ondo moztea da gakoa gure ileari estilo sofistikatuetara zein lotsagabeagoetara egokitzen den forma modernoa emateko. Era guztietako joerak har daitezke, kizkurretatik hasi eta airean lehortutako geruzetaraino. Aldaketa nahi dutenentzat, gehiago mozteko unea da: matrailezurraren parean lerro leun batekin ukitu arduragabea eta garaikidea lortuko dugu. Beste aukera bat 70eko hamarkadan inspiratzea eta luzea sorbaldaraino erortzen uztea da. Hainbat luze txandakatzea ebaketa eguneratzeko modu egokia da.



Laguinda
-JANTZIDENDA-
Bidebarrieta, 18
943 20 84 41

PELUQUERÍA
BLENDA
943 206331
Ubitxa, 1

CAPÍ Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

UltraLift HIFU
Intensitate handiko
ultrasoinu fokalizatua

LIFTING
KIRURGIKOAREN
BENETAKO
alternatiba

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISAren ERAGINKORRA
DEN TEKNOLOGIA BAKARRA

ZONALDEAK
izterrak / ipur-masailak
besoak / sabelaldeak

Azalarren
ELASTIKOTASUNA
hobetzen

GRATZINA Zuloagatarren, 1
943 821 577



Baxoa eta Brebeta euskaraz izan arte irmo borrokatzen jarraituko dute

"Azterketak euskaraz, eta kitto" borrokarekin aurrera darrai Ipar Euskal Herriko hezkuntza komunitateak. Brebeta azterketa 15 urte dituztenean kolegioa amaitu ostean egiten dute; eta, bestetik, Baxoa hiru urte irauten duen bigarren hezkuntzako zikloa bukatzean egiten duten froga da (Hegoaldeko selektibitatea). Azkena berebizikoa da ikasleentzat, bereziki, goi mailako ikasketak egin nahi dituzten gazteen etorkizunean. Brebeta urtero 250 bat ikaslek egiten dute Ipar Euskal Herrian eta Baxoa, aldiz, 100 bat ikaslek.

Ikasle hauek haien ikasketa guztiak euskara hutsean egiten dituzte. Azterketa egunean, azterketen arabera, gai batzuk euskaraz aurkeztu ditzakete, baina beste batzuk frantsesez aurkeztera behartzen zaie.

Seaskako irakasle, ikasle eta gurasoen jarrera irmoa da: Baxoa eta Brebeta azterketak osorik euskaraz egin daitezten nahi dute, eta ekinean jarraituko dute helburu hori lortu arte. Elorri Falxa irakasle da Lartzabalen, Manex Erdozaintzi Etxart kolegioan eta iaz uko egin zion azterketak zuzentzeko ardura ofizialari, ikasleak Brebeta frantsesez egitera behartzearen "injustizia" salatzen; zigortu egin du Frantziako Hezkuntza Ministerioak.

Elorrik esan digunez, "Historia-Geografia eta Matematikako frogak euskaraz aurkeztu ahal dituzte (aztertze dokumentuak, hala ere, frantsesez egoten dira), baina azken urteetan berria den Zientzien gaia euskaraz aurkeztea ezeztatzen zaie".

Elorrik dioenez, "azken urteetan, aurrepausoak izan beharrean, atzerapauso handia egin dugu Zientzien gaiarekin: 1994az geroztik gure ikasleek haien Brebeta osoki euskaraz aurkezten zuten. 20 urte atzera goaz debeku berri horrekin".

Ikasleek desobedientziaren bidea hartu dute, haien azterketen zenbait gai osoki euskaraz aurkeztuz, euskaraz zuzenduak izango ez direla jakin arren. Irakasleen aldetik, iaz hasi zuten desobedientziaren jarrera, frantsesezko azterketak zuzentzeari uko eginez, eta aurten ere horrela jarraitzeko asmoa daukate. Gurasoek ekimen ugari antolatzen dihardute, gizartea gaiaz jabetzeko, eta aldarrikapenak ozen entzunarazteko.

Izaera politikoa duen arazoa politikoki konpondu behar dela diote Euskal Konfederaziotik. Hori guztia salatzen, "Baxoa Euskaraz" dinamika antolatutako elkarretaratzearekin bat egin eta euskaltzale guztiak deitzen ditu ekainaren 15ean, 12:00etan, eguaztena, Baionako Cassin Lizeoaren aitzinean biltzera.

Hiru ingeles ilustre

Ingalaterrako bihotzetik iritsi dira Eibarrera Stuart Davidson, David Brooks eta James North. Stuart Darlingtongoa da, David Harrogatekoa eta James Silsdengoa. Hau da, lehenengoa Durham konderrikoa, eta beste biak Yorkshirekoak; denak Ingalaterra iparraldekoak. Beraz, euren jaioterriak elkarrengandik nahiko hurbil zeuden, baina ingelesa erakusteko eta beste kultura, hizkuntza eta toki batzuk ezagutzeko gogoak batu ditu Eibarren.

Eibarrera zertara?

Jamesek bi urte daramatza hemen, Stuartek lau eta Davidek bost. Baina nola iritsi zinen hona? “Euskara ikasi nahi nuen”, diosku Davidek euskara hutsean. “Pentsatu nuen Bilbora edo Donostiara joanez gero jendeak ingelesez edo gaztelerez egingo zuela gehiago. Beraz, Eibar toki egokia iruditu zitzaidan euskara ikasteko”, gehitzen du. Jamesen historia “aspergarriagoa da”, bere ustez. Hemen inguruan ingelesezko irakasle bila zebiltzala ikusi zuen egunkariko iragarki batean, izena eman zuen, baiezkoa jaso eta horregatik etorri zen. “Eta bide batez euskara ikastera ere bai”, azpimarratzen du. Stuartek, Davidek bezala, Euskal Herriko hiriburueta joatea baztertu zuen, toki txikiago batean Euskal Herriko bizimoduaren benetako esperientzia biziko zuelakoan. “Oso pozik nago egin nuen aukeraketarekin”, baieztatu digu, “eroso nago eta benetako esperientzia bizitzen dihardut”.

Lehen inpresioa

Etorri aurretik ez zekiten gauza askorik Eibarri buruz. “Foball taldea ezagutzen genuen batez ere”, esan digutenez. “2017an, etorri nintzenez, Eibar herri itsusien artean zegoela irakurri nuen nonbaiten. Ba ez dakit, niri gustatzen zait”, Davidek dioenez. “Barixaku arratsalde batean iritsi nintzen eta herrian demaseko gi-

roa dagoela ikusi nuen berehala. Askok gustatu zitzaidan, nahiz eta batzuetan gehiegizkoa izan, hiri erdian bizi garelako”, diosku barrez Jamesek. Stuartek ere gauza bera atzeman zuen: “Demaseko bizia du herriak”. Bestalde, Eibarko orografiaren ezaugarriek ere atentzioa eman diete. “Herrian ez dago espazio handirik eta harrigarria egin zitzaidan kaleetan eskailera mekanikoak ikustea. Sekula ez nuen horrelakorik ikusi!”, dio Jamesek.

Eibarko giroa gogoko

Hirukoteak ez du inolako arazorik izan Eibarko bizimodura egokitzeko. Izan ere, euren berbetan, ez dago hainbesteko alderik hango eta hemengo bizimoduen artean. “Ez da hain ezberdina”, Daviden ustez, “agian hemen pixka bat beranduago bazkaltzen eta afaltzen dugula, baina bestela...”. “Beste ezberdintasun bat da hemen dendak eguerdian eta domeketan ixten dituztela”, gehitzen du Jamesek. Stuartek beste kontu bat azpimarratzen du: “Asteburuetan familia-giroa ikusten da kaleetan, elkarrekin gozaten, taberna kanpoan, jatetxeetan, eta abar. Ingalaterran, orokorrean, helduak lagunekin irteten dira zerbait hartzera, umerik gabe. Hemengo giroa nahiago dut”.

Euskaraz trebatzen

Irakasleak izanik, hizkuntza gaietan adituak dira, baina hona iritsi zintenean, normala denez, gorabeherak izan zituzten, nahiz eta orokorrean ondo moldatu. “13 urte nituenetik gaztelera ikasi dut eta, zentzu horretan, ez nuen arazorik izan”, diosku Jamesek. Davidek, ordea, beste egoera bat bizi izan zuen. “Duolingo mugikorreko aplikazioan 30 egunez jo eta su ibili nintzen gaztelera ikasten eta euskarazko liburuxka bat ere lortu nuen”, diosku. Beraz, hasieran gehiago kostatu zitzaion, baina gaur egun ondo moldatzen da euskaraz. Stuartek, bere aldetik, ez

Elkarrizketaren bideoa ikusteko:





Hirukoteak ingelesezko klaseak ematen ditu Ermuko Akerlei akademian. EKHI BELAR

zuen gaztelerazko edo euskarazko ikastarorik jaso hona etorri aurretik, “baina hizkuntzak ikatea maite dut (Frantzian eta Andaluzian bizi izan da hainbat urtetan) eta euskarazko berba eta esaldi batzuk ikasi ditut. Denbora gehiago dudanean euskaltegira joatea nahiko nuke gehiago ikasteko”, esan digunez.

Eibartarrak ingelesez

Eta eibartarrak nola moldatzen dira ingelesez? “Batzuetan, kalean ingelesez berba egiten entzuten digutenean, batzuk berba egitera etortzen zaizkigu ingelesa praktikatzeko gogoz”, diosku Jamesek. Stuartek ere gauza bera atzeman du. “Jendeak ingelesa praktikatzeko gogo du”, dio. “30 urtez azpikoez, normalean, badakite ingelesez egiten, baina nagusiagoi gehiago kostatzen zaie”, Daviden ustez. “Dena dela, guk dugu hemen euskaraz berba egiteko ardura, ez eibartarrek ingelesez aritzekoa”, gehitzen du.

“ Ey up lad! ”

lepa mutil! (Yorkshiren erabiltzen da, agurtzeko).

“ A problem shared is a problem halved ”

Hitz egin zure arazoari buruz eta ez da hain txarra izango.

“ I’ll go to the foot of our stairs ”

Harridura adierazi nahi du (Yorkshiren erabiltzen da).



Zeruaren handitasunaren arrimura. RAMONBEITIA

Igoerarik gabe ere, eskubaloi asteburu bikaina Ipuruan

Partidu bakarra irabazi zuten Fernando Fernandezek mutilek, barixakuko eta zapatukoa galdu ondoren; baina, hala ere, jai handia bizi izan zuen gure herriko eskubaloi zalegoak zilarrezko mailara igotzeko Ipuruan jokaturako fasean. Barixakuan, bigarren zatian bost goleko aldearekin irabazten joan eta gero, 0-7ko partzial batek markagailua irauli eta OAR Gracia Sabadell-ek 30-34 irabaztea ekarri zuen. Zapatuan 24-29 irabazi zieten eibartarrei gero igoera eskuratuko zuen Madrilgo Ikasa taldekoek eta, azkenik, domeka goizean jokaturako neurketan,



Arrate Eibar Eskubaloikoak Santoña baino gehiago izan ziren, 29-27 irabazteko. Kolore berdea nagusitu zen Eibarko kanporaketan, Madrilgo eta Sabadelleko taldeen kolorea, euren artean erabaki baitzen azkenean zeinek igoko zuen mailaz, txanpona Ikasaren alde erortzeko.

Arrateri dagokionez, Lander Casado eta Jon Barruetabeña izan ziren goleatzaile nagusienak lehen partiduan, Mikel Zuloaga bigarrenean eta Axier Gisasola eta Barruetabeña berriro azkenekoan. Mailaz igo barrik ere, denboraldi bikaina izan da Arrateren talde guztiena.

Bar Txoko guztiz nagusitu da foball-zaletuaren denboraldian

Aurreko zapatuan Garajes Garcia-ri 3-0 irabazita, Bar Txokok Ligan eskuratutako txapela berretsi zuen Kopa torneoan ere. Ismael, Alex eta Munioz izan ziren partiduko goleatzaileak. Eta Garajes Garcia oraingoan ere azpitxapeldun izatearekin konformatu behar izan zuen, Ligan egokitu zitzaien bezala. Partiduaren amaieran izandako ekitaldian denboraldiari dagozkion sari guztiak banatu ziren, ohorezko koadroa honela

geratuz: Ligan, Bar Txoko, Garajes Garcia eta JMR Tankemans taldeek osatu zuten podiuma, Bar Txokok bereganatu zituen goleatzaile nagusiaren eta gol gutxien jasotako atezainaren sariak eta, azkenik, kiroltasunarena Bali Center Sports taldearentzat izan da; Kopan, bestalde, Bar Txokok jaso zuen txapela eta finaleko jokalaririk onenaren saria eta Garajes Garcia azpitxapeldun geratu zen.



Galdaramiño Igoeraren XII. edizioa jokatu da domeka goizean

Azken urteotan Urkiko Jaien barruan antolatzen den mendi igoerak 12. edizioa beteko du etzi, 09:30etik aurrera. Jakina, bertan izango dira baita Atzegiko bi talde ere: desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte ordezkatzen bi talde izango dira, bi ibilbide eginez. Bestelako kirolariak Galdaramiño igoerako lau gailurretatik pasa beharko dute, guztira 18 kilometroko ibilbidean 930 metroko desnibel positiboa gainditzeko: aipaturako gainak Galdaramiño (669 metro), Azkonabitz (726), Topinburu (590) eta Ilordo (500) dira. Aukera bikaina, beraz, mendiaz antxintxikan edota oinez gozatu nahi duenarentzat. Izena emateko: https://inscripcion.kirolprobak.com/inscripcion/galdaraminoigoera/inscripcion_datos/?lang=eu

Caja Rural-eko Ander Otegi irabazle kadete mailako lasterketan

Domeka goizean jokaturako Eibarko Txirrindulari Elkarte Sariaren bosgarren edizioan Caja Rural-Ikolan-Beasain nagusitu zen taldeka eta, horrez gain, bertako bi ordezkari lehenengoa eta hirugarrena izan ziren Urkizun kokaturako helmugan. Bost lagunen arteko esprintean jokatu zen kadeteen mailako proba horretako garaipena eta hor Otegi aurrea hartu zien Aritz Aranburu (Atracciones Sanz-Aitzaki), Ander Gonzalez taldekidea, Oier Arana (Ipar Maquina) eta Beñat Ilzarbe (Iruki-Donostialdea) ihesaldiko lagunei. Boskoteak 1:40:10eko denbora egin zuen, osatu beharreko



68 kilometroak batazbeste orduko 40'732 kilometroko abiaduran. 92 txirrindularik eman zuten izena mendi-gainik gabe ere etengabeko igo eta jaitsi horrek ibilbidea exigien-

tea egiten zuen proban; lasterketa polita izan zen eta, denboraldi honetan Txirrindulari Elkarteak antolatutuen beste probetan bezala, eguraldiak ere berea lagundu zuen.

Urbat waterpolo taldea Euskal Herriko Ligako azpitxapeldun, Orbean galduta

Hiru urtetan jarraian Euskal Herriko Liga txapelketa irabazi eta gero, oraingoan bigarren postuarekin konformatu behar izan dira Davide Cerchik zuzendutako taldekoak. Aurreko barixakuan Orbea kiroldegian jokaturako partiduan, Askartza gehiegi izan zen Urbat-Urkotronik taldearentzat eta eibartarrek amore eman behar izan zuten (7-11), partiduari hasiera kaskarra eman eta gero, 0-4koarekin amaitu baitzen lehen zatia. Hala ere, ondo saiatu ziren eibartarrek ondoren, "Jon Treviño indomittoa, Unax Unzeta pirata eta Izei Sologaitoa atezaina buru

izan zituen jokoarekin". Hurrengo denboraldian txapelaren bila irtengo dute berriro Urbatekoek.

Euskal Herriko selekzioarekin

Bestalde, Miren Urizar eta Jon Treviño eibartarrak ekainean Txekiar Errepublikan jokaturako den EU Nations txapelketan parte hartuko duten Euskal Herriko selekzioekin izango dira. Urbatekoa zein Leioakoa (bertan jokatu du Urizarrek) aurretik ere izan dira selekzio horietan. Haur mailako taldea Malagan jokaturako den Espainiako txapelketarako sailkatu da, Easori Donostian



erraz irabazi eta gero. Urbat dagoneko ohikoa da maila nazionalako lehiaketetan: oraingoan 20 talde dituen ligan jardungo du. Alebin mailako taldeak, azkenik, aurrerapenak egiten jarraitzen du.

Dezepzioa baztertu eta beste urrats bietan aurrera egiteko asmoa du Eibar FT-k

Domeka gauean izandako porrota ez zen nolana hikoia izan Eibar FT-ren zaleentzat (eta eibartarrentzat oro har), baina Garitanok zuzen-

tzen duen taldeak beste aukera bat izango du 1. Mailara igotzeko helburua erdiesteko. Atzo jokatu zuen lehenengo partidua Gironan eta

domekan, arratsaldeko 18:30ean hasita, itzulerako partidua izango dute zain Ipuruan. Ea aurrera egin eta kanporaketa gainditzen duten.

David eta Lombraña irabazle Euskal Jaiko I. Pala Txapelketan

Partidu borrokatua izan zen zapatu goizean Astelenan jokatu zen torneoaren finalekoa. Azpilikuetak eta Iosuk osatutako bikoteak gogor egin ziolako aurre azkenean garaile izan zen Davidek eta Lombrañak osatutakoari. Azken emaitza 25-20 izan zen azkenekoen alde, ordu eta erdiko iraupena izan zuen partiduan. Arrakastatsua izan da, beraz, torneo berri horretako lehenengo edizioa eta hurrengo urteotan berarekin jarraitzeko asmoa erakutsi dute Eibarko Klub Deportiboko pilota batzordearen barruan pala arloz



ardurutzen diren antolatzaileek. Bazen ordua horrelako zeozer antolatzeko gurean, orain arte kanpoko torneoetan (Turretan etabar) parte hartu izan dutelako Eibarko bikoteek: “2019an antolatutako beste torneo batean hogeik bikotek eman zuten izena”, dioskue.

Azkoitiko Floreagan amaituko da bihar Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa

Probintziako hiru-txirlo txapelketaren 51. edizioa azken unera helduko da Asola Berriko bi bolari sailkapen nagusiaren buru direla. Bihar Floreagako bolatokian jokatu da azken jardunaldia eta Iñaki Gojenolak bi txirloko alde kentzen dio Gari



San Joxepen izandako lehen sailkatuak.

Rodriguez taldekideari eta laukoa etxean jokatu duen Gorka Etxaniz bolariari. Eibartarrei dagokienez, Bittor Ugarteburu zazpigarren da eta Ganix Rodriguez bederatzigarren. Emakumezkoen sailkapenean San Migueleko Aitziber Olaizola da lider eta bira dago Enara Montiel eibartarra, hirugarren postuan. Beteranoetan Asola Berriko Bittor Ugarteburu bigarren dugu, liderrengandik txirlo bakarrera. Eta taldea Asola Berri A bigarren dago, San Miguel A-rengandik bi txirlora.

Aurreko zapatuan Bergarako San Joxepen jokatu azken tiraldian, Lasturreko Joseba Lazkano nagusitu zen, berarekin berdindu bazuten ere Floreagako Etxanizek eta Bittor Astigarraga eibartarrak, hirurak sei txirlorekin. Bostekin sailkatu zen atzetik Asola Berriko Gari Rodriguez.

Pello Osorok marka egin du Madrilgo Half Triatloian

Eibarko triatloilariak Distantzia Erdiko triatloi proba batean estatuko batazbesteko abiadura handiena lortu du bizikleta gainean as-teburuan jokatu Madrilgo Half Triatloian. Hasi aurretik faborito bazen ere, probaren amaieran 12 minututik gorako alde kendu zion Osorok Ignacio Cabrera bigarrenari eta 16 minututik gora Jose del Caño hirugarren sailkatutakoari. Bizikleta gainean lortutako denbora izan zen aipagarriena Pelloren kasuan, orduko 46 kilometrotik gorako abiadura osatu baitzuen ia 90 kilometroko ibilbidea; hori bidean ia 800 metroko desnibel positiboa gainditu eta gero. Aurretik ere, neguko bost triatloi eta Espainiako txapelketa jokoan zegoen distantzia erdiko Soriako duatloia bereganatu ditu Osorok denboraldi honetan.



Bertan hartu zuen parte baita gure herriko Jaz Triatloi Taldeko Javi Muñozek ere, 90. postuan amaitzeko. Jaz taldeko ordezkariek ere hartu zuten parte Gorlizko eta Rasilloko triatloietan. Azken horretan, esprint distantziako triatloian, Roberto Gartzia podiumera igo zen bere mailako azkarrenetako bat bezala. Eta Gorlizko triatloian Aitor Fernandezek 91. postuan amaitu zuen, 1:20:28ko denborarekin.

“Euskaraldia arrakastatsua izateko herri-batzordeak indartu nahi ditugu”

IDOIA ARGOITIA • EIBARREN AKEBAI



Badator Euskaraldia! Entitateen izen-ematea zabalik dago eta norbanakoena irailean hasiko da. Euskaraldiaren helburua da gure hizkuntza ohiturak aldatuz euskararen erabilera handitzea. Eibarren eta beste herrietan ekimena arrakastatsua izan dadin herri-batzordeak indartzea ezinbestekoa dela dio Idoia Argoitia Eibarren AKEBAI-ko koordinatzaileak.

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo da ariketa soziala; 15 egun izango dira, aurreko edizioan bezala. Herritarrek ahobizi eta belarriprest moduan hartuko dute parte, eta aurreko edizioan egin zen bezala, entitateek ere (denda, taberna, enpresa, elkarte, zerbitzu...) parte hartuko dute.

Zer lortu da aurreko bi edizioetan?

2018ko Euskaraldia euskararen erabilera bultzatzeko inoiz egin den ariketa masiborik handiena izan zen; ilusioa eta konplizitatea sortu zuen herritarren artean. Hizkuntza ohiturak aldatzeko urrats berriak emateko 225.000 lagunek eman zuten izena lehen Euskaraldian Euskal Herri osoan. Eibarren 3.825 lagunek eman zuten izena ahobizi, belarriprest edo bihotzgoxo moduan. Baina parte hartu zutenen kopurua bezain garrantzitsua da, prozesuan zehar, herrietan egitasmoa aurrera eramateko antolatu ziren talde edo batzordeen lana; euskaltzaleak, gizarte eragileak eta erakundeak aritu ziren elkarlanean. Eibarren, AKEBAIko mahaletako hainbat kidez osatutako batzordea eratu zen, eta beste eragile batzuen lankidetzarekin antolatu zen Euskaraldia gure herrian.

2020ko Euskaraldia pandemia betean izan zen. Nola baldintzatu zuen osasun-egoerak?

Gutziz baldintzatu zuen bai herrietako batzordeen aktibazioa eta lana, bai ariketa bera. Herritarren parte-hartzean eta giroan eragin handia izan zuen COVID-19ak. 2. edizioaren berrikuntza entitateen parte-hartzea izan zen, horretarako aurretik adostutako ariguneak izen-

datuz. Izen-emateari dagokionez, 178.184 norbanakok eman zuten izena Euskal Herrian, eta parte hartu zuten entitateek 24.363 arigune sortu zituzten. Eibarren, 2.377 herritarrek eman zuten izena eta entitateetan 343 arigune osatu ziren. Baina, ez zen egon giro egokirik herrietako batzordeak osatzeko eta kide berriak erakartzeko; 2018ko Euskaraldirako sortutako taldeen jarraipenak izan ziren 2020ko edizioko herri-batzorde gehienak. Horieta batzuk dagoeneko sortuta zeuden euskara talde edo batzordeetatik abiatutakoak izan ziren. Eibarko kasuan, AKEBAIko Ekipora mugatu zen ia-ia Euskaraldia antolatzeko batzordea.

Zer diote emaitzek? Euskaraldia bezalako ekimenak eraginkorrak dira euskararen erabilera bultzatzeko?

Garbi dago 2018ko edizioak eragin zuela aldaketarik handiena; 2020koaren inpaktua txikiagoa izan zen, jakina. Baina, eragozpenak eragozpen, ikerketa-lanak garbi erakutsi du ekimena eraginkorra dela, eta herritarrek Euskaraldiaren bitartez euskarazko portaerak indartzen jarraitu nahi dutela. Ikusi da ahobizi/belarriprest dinamikak eta entitateetan ariguneak adosteak laguntzen dutela hizkuntza ohiturak aldatzen. Izan diren bi edizioetan, Euskaraldian zehar iguera bat egon da euskararen erabilera eta jaitsiera bat ondoren, baina ez igoeraren parekoa. Txapak erabiltzeak laguntzen du ariketa erosoago egiten, eta gune babestuetan eta taldearen adostasunarekin errazagoa da euskaraz aritzea. Beraz, hel diezaiogun ilusioz eta gogotsu 3. Euskaraldiari!

Zein da aurtengo erronka nagusia?

3. edizioa izanik, aurreko bietan egindakotik ikasi eta herritarrek hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenean

ilusioz eta modu egokian parte har dezaten lortzea da, berez, nahi dena. Eta badago hobetzeko margena, jakina; bai antolaketan, bai zabalkundeetan, bai elkarlanean, bai ariketa ulertzeko eta egiteko moduan, bai parte-hartzaile eta arigune kopuruan... Baina lorpenak ere izan dira, eta ez gutxi; eta horiek ere erakutsi egin behar dira.

Eta lan-ildo eta helburu nagusiak?

Alde batetik, Euskaraldian parte hartzen duten norbanakoek eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak ematea. Eta, bestetik, parte-hartzea handitzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea. Helburu horiek betetzeko azpi helburuak ere zehaztu dira: parte-hartzaileen lorpenak bistaratzea; ahobizi, belarriprest eta arigune kontzeptuak zabaltzen jarraitzea; entitateetan ariguneak hedatzea; ariketa ikusgarri egitea (banderolak, lonak, muralak, ekitaldiak...), kalea hartzea... Baina helburu eta azpi helburu horiek bete-ko badira, ezinbestekoa da herri-batzordeak indartzea, eragile sozial eta instituzionalak, zein herritar euskaltzaleak lankidetzan arituta. Horixe da orain Eibarren eta beste herri askotan egin behar duguna: ekimena arrakastatsua izan dadin, bakoitzak ahal duen neurrian laguntzeko eta lankidetzan aritzeko eragile eta herritar euskaltzale talde anitza eta indartsua osatzea. Beraz, laguntzeko prest bazaude, jarri gurekin harremanetan: eibarrenakebai@gmail.com. Tel. 943 708426 . Portalea. Bista Eder 10 (2. solairua)

Oraingoan ere norbanakoek eta entitateek parte hartu ahal izango dute, ezta? Entitateek garbi dute zer diren ariguneak?

Bai; herritarrek (norbanakoak) ahobizi edo belarriprest moduan hartuko dute parte Euskaraldian, eta aurreko edizioan egin zen bezala, entitateek ere parte hartuko dute ariguneak osatuz. Ariguneak entitateetan (denda, taberna, talde, elkarte, erakunde, zerbitzu, enpresa...) euskaraz lasai aritzeko identifikatzen diren guneak dira. Arigune batzuk entitateko pertsona taldeek osatzen dituzte, eguneroko harremana daukatenak. Kide guztiak ulertzen dute euskara eta ariketa egitea erabakitzen dute ahobizi edo belarriprest moduan. Taldean sortutako ariguneak dira horiek. Beste arigune batzuk



Eibarren AKEBAI-ko Idoia Argoitia

entitateak eta herritarrek harremanetan egoteko espazioetan edo dinamiketan sortzen dira: harrera-guneak, salerosketa-puntuak... Gune horietan herritarrei harrera egiten dieten ahobizi eta belarriprestak egongo dira; bat, gutxienez, uneoro. Arigune batzuek bi motatako ezaugarriak izaten dituzte; denda batean langile bat baino gehiago dagoenean batera, adibidez.

Izen-ematea noiz izango da?

Entitateen izen-ematea zabalik dago, eta urriaren erdialdera arte aukera izango da horretarako. Norbanakoena, berriz, irailaren erdialdean hasiko da. Aurten, izen-ematea errazagoa izan dadin, aurreko edizioaren batean parte hartu zuten herritarrek eta entitateek mezu bat jasoko dute koordinazio orokorretik izen-ematea berresteko, hala nahi badute behintzat. Entitateen kasuan hasi dira mezu horiek bidaltzen eta parte-hartzea berresteko jarraibideak ematen. Joango gara informazioa zabaltzen, bai koordinazio orokorretik, bai herri-batzordetik. Izen-ematea Euskaraldiaren webgunearen bidez ere egin daiteke (www.euskaraldia.eus)

Zeintzuk dira Eibarren emango diren hurrengo urratsak?

Eibarren ekainerako Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia antolatu nahi dugu; laster emango dugu horren berri. Dena dela, edozelako zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan. Eta gogoratu: Hitzek ekiteko garaia da!

HITZETZ EKITEKO GARAIA



Jendea behar dugu
EUSKARALDIA
antolatzeko
Eibarren

Euskaraldiaren antolakuntzan
parte hartu eta zeure aukeren
arabera lagundu nahi baduzu, jarri
gurekin harremanetan:

 eibarrenakebai@gmail.com
 943 70 84 26
 @akebaieibarren



Gehiago eta hobeto egingo dugu asko bagara!

AINARA UNANUE • Aktorea



'Cosa' antzezlana aurkeztuko du Madrilen aktore eibartarrak. DEPALABRAYHUESOS

“Lur jota amaitzen ditut ikusizunak”

Ainara Unanue aktore eibartarrak 'Depalabrayhueso' izeneko konpainia sortu du eta ekainaren 11n Madrilgo 'El Pasillo Verde' aretoan aurkeztuko du konpainiaren lehen antzezlana: 'Cosa'. Unanuek antzerki fisikoa eta dantza garaikidea uztartzen ditu ikuskizunean, eta denbora guztian eszetoki gainean bera bakarrik egongo da.

Zergatik sortu duzu konpainia?

Urte asko daramatzat antzerkiaren munduan. Hainbat konpainiatan ibili naiz eta neure kabuz zerbait sortzeko gogoia neukan. Orduan, 'Cosa' ikuskizuna sortzen hasi nintzen eta berehala ikusi nuen kon-

painia sortu behar nuela aurrera jarraitzeko.

Nolako lana izan da?

Pieza hau orain dela lau urte pres-tatu nuen, baina ez neukan denborarik ondo osatzeko eta abar. Orduan, pandemia iritsi zen eta la-

narekin aurrera jarraitzeko aukera nuela ikusi nuen. Rakel Ezpeleta-rekin elkarlanean antzezlari forma eman genion eta, gero, taldea osatu genuen Mexikoko zenbait lagunekin. Lan gogorra izan da, antzetzear gain beste mila gauza egin behar izan ditudalako, baina ilusio handiz egin dut, lagun artean eta euren laguntzarekin.

Nolako antzezlana da 'Cosa'?

Helduei zuzenduriko ikuskizuna da. Antzerki fisikoa lantzen dugu, dantza garaikidearen hizkuntzarekin uztartuz. Bertan, abusuak jasateko arriskua duen neska bat da protagonista (gaztea, pobrea, lan esplotazioaren biktima...) eta kosifikazioari buruzko gogoeta bat planteatzen dugu. Bera bakarrik agertzen da taula gainean eta irudimena erabiltzen du ihesbide bezala.

Taula gainean bakarrik egonik, nola amaitzen dituzu saioak?


Lur jota! 2021eko azaroan Mexiko Hirian egin genuen ikuskizunaren nazioarteko aurrestreinaldia eta jota amaitu nuen saioa.

Nolako bidea egin duzu antzerkiaren munduan?

Unibertsitate Laboralean hasi nintzen Narruzko Zezen taldearekin. 14 urte nituen eta hasieratik ikusi nuen hori zela nire bizitzan egin nahi nuena. Gero Gasteizera joan nintzen ikasketak egitera, zenbait konpainiatan ibili naiz eta horrela orain arte.

'Cosa' Madrilen dago ikusgai orain, baina beste toki batzuetan ibiliko zarete?

Bai! Abenduan Euskal Herrira joatea espero dugu eta, noski, Eibarren aritzea. Zenbaitetan antzeztu dut Eibarren, baina ez hainbeste, eta gogoia dut.



Zeramika eta marrazketa ikasten dutenen erakusketak ikusgai

Zeramika Udal Eskolak eta Dibujo Udal Eskolak ikasurte amaierako erakusketa zabaldu dute Portalean, ikasleek kurtsu honetan egindako lanekin. Ekainaren 17ra arte egongo da ikustera joateko aukera, astelehetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Eta ekainaren 10ean aurkeztuko dituzte Topalekuan Maite Arriagaren Sormenezko Tailer Artistikoen ikasleen lanak. Arratsaldeko 19:00etan “pintxo-pote eder batekin” inauguratuko duten erakusketan kurtsuan zehar eskaini diren tailer ezberdinetan ikasleek egindako lanak ikusi ahal izango dira. Asteburu bakarira iraugo du erakusketak: barixakuan 19:00etatik 21:00etara zabalduko dute, zapatuan 12:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara eta, domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.



Ikusleak liluratu zituzten Kaxa Zirkoko artistek

KAXA mugimendu eta sormen guneak “Kaxa Zirkoa” aurkeztu zuen Coliseon, aurreko astean egin zituen bi saioetan. Ikasleek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten eta akrobatik, dantzariak, mimoak, magoak eta bestelako artistak bildu ziren eszenatoki gunean.

UEUko ikastaroetarako laguntzak

Udalak UEUko ikastaroak egin nahi dituzten eibartarrei zuzendutako dirulaguntza deialdia argitaratu du. Baldintza guztiak betetzen dituztenei matrikularen prezioaren erdia itzuliko zaie. Eskaerak irailaren 30era arte egin daitezke. Dirulaguntza hau 2021eko irailaren 1etik 2022ko uztailearen 31 arte UEUn ikastaroak egin dituzten eibartarrei zuzendua dago. Eskaerak online egin behar dira (<https://labur.eus/E6bCp>).

Uxue Alberdik agurtu ditu Harixa Emoten literatura saioak



Euskarazko literatura tertulien azkeneko saioa izan da aste honetan, eta azkeneko saio horretarako Uxue Alberdiren Dendaostekoak liburua irakurri dute tertuliakideek. Idazle elgoibartarrek solasean jardun zuten Antxon Narbaizak gidatutako saioan. Udazkenean proposamen berriekin etorriko da Harixa Emoten ekimena.

Marmitako lehiaketa sanjuanetan

Sanjuanak direla eta, Udalak XXVII. marmitako lehiaketa antolatuta du. Izena emateko epea gaurtik hasita ekainaren 19ra arte egongo da zabalik. Lehiaketa gastronomikoaren edizio berria, bestalde, ekainaren 25ean egingo da, Untzagan, 11:30ean. Izen-ematea online egin behar da, Udalaren web orrian dagoen formularioa beteta.



Musika Eskolan matrikula betetzeko epea zabalik dago

Zabalik dago hurrengo ikasturterako matrikulazio epea Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan. Izen-emateak Pegoran egin ahal izango dira, kontuan izanda epe ezberdinak daudela: lehen aldiz instrumentuan izena emateko epea ekainaren 6tik 10era bitartekoa da eta ikasle berriak matrikulatzeko epea, berriz, ekainaren 22ra arte egongo da zabalik.



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6	3	5			
	4	8			
5		1	9		8 4
3 4				9	
8					1
	9				5 2
7 3		6 2		4	
			8 2		
		4	3	6	

6	7	8	9	1	2	3	4	5
1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

6	7				
	9 4	8			
5 8		7			2
1	8 3 4				5
9		6			1
4		5 9 2			8
	5		6	1 7	
		2	6 3		
			5 2		

**S
U
D
O
K
U**

6	7	8	9	1	2	3	4	5
1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

Ekainak 3/9

BARIXAKUA 3

ZINE-FORUMA

18:30 "Entre nosotras" (Filippo Meneghetti). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkorro. Portalea (areto nagusia).



URKIKO JAIK

19:15 Jaien hasiera. Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.
19:30 Nagusiei omenaldia Cepa parean. Txikiteo popularra. Umeei opariak banatzea.
23:00 Camp-erronomia Martarekin. Polonia Etxeberria.
DANTZA
19:30 Nele Dantza. 3 euro. Coliseo.

ZAPATUA 4

URKIKO JAIK

11:00 IX. Txiki-krosa. Urki-Kurutzekua.
12:30 Txorizo eta salda banaketa. Cepa eta Vila tabernen parean.
13:30 Herri-kirolak Ernesto Ezpeleta "Bihurriekin". Polonia Etxeberria.
17:00 XIX. Igel-toka txapelketa. Rioja taberna parean. Umeendako jolasak.
19:00 Cava eta otarrainxka jaia, Vila, Nuevo, Bodega eta Rioja tabernak eta Urkiko jubilatuen etxearen laguntzarekin.

23:00 Kontzertua: Bruce Springsteen kantuak eta rock-eko klasikoak. Polonia Etxeberria.
DANTZA
19:30 Nele Dantza. 3 euro. Coliseo.



DOMEKA 5


FINALISTA EGUNA

09:00 Elkartzea txangoa egiteko. Deporren aurrean.
12:30/13:00 Dominen banaketa eta piscolabisa.
URKIKO JAIK
09:00 Mendi-martxa Atzegiren eskutik. XII. Galdaramiñora Igoera.
12:00 XXII. Paella Lehiaketa. Os Galaicos taldearen kalejira.
13:00 Auzoko hildakoen aldeko meza. San Jose Obrero eliza.
14:30 Paella lehiaketako epaileen erabakia.
16:45 Euskalzumba, Xaiborren eskutik.
18:30 Txokolate-jana.
19:00 Sari-banaketa eta DJa. Polonia Etxeberria.
21:00 Jaien amaiera.



IBILALDI GIDATUA

10:00 Eibarko ondare naturala ezagutzeko ibilbide gidatua (Usartza-Kalamua inguruan). Hasiera Usartzan.



MARTITZENA 7

IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Ardantza 11tik abiatuta.
AURKEZPENA
18:00 Eibarko Zarata Mapa berriaren aurkezpena-Udaletxea (pleno aretoa).

EGUAZTENA 8

TAILERRA

18:00 Energia Argitu: "Komunitate energetikoak: zer dira eta nola funtzionatzen dute". Portalea (B batzartokia).



DANBORRADA

19:00 Sanjuanetako umeen danborradarako entsegua.
20:00 Helduena. Beistegi eraikina (B. Sarasketa, 7).

EGUENA 9

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Ambulatorioa.
AMAÑAKO DANBORRADA
19:00 Amañako danborradarako hurren entsegua.
20:00 Helduena. Amañako eskola.
DANTZA
20:00 Biraka Dantza. 3 euro. Coliseo.



ERAKUSKETAK

Ekainaren 5era arte:

- "Istrupak eta Prebentzioa. XX. Mendeko kartelak". (Armagintzaren Museoa).

Ekainaren 7ra arte:

- Zeramika Udal Eskolaren eta Dibujo Udal Eskolaren ikasturte amaierakoa. (Portalea).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

FOBALL-7

4an (zapatua) / 09:00
Betiondo

I. Ander Moya Memoriala. Finala 16:00etan. Antolatzailea: Ermua Blues FT. "Unidos contra el DIPG" erakundearentzat dirua batzeko helburuarekin.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **5ean:** 20:00
- **6an:** 20:30

“Cinco lobitos”

Zuzendaria: Alauda Ruiz Azua



2 ARETOA

- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 20:30

“Sin ti no puedo”

Zuzendaria: Chus Gutiérrez



ANTZOKIA

- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 20:30

“Top Gun. Maverick”

Zuzendaria: Joseph Kosinsky



1 ARETOA

- **5ean:** 17:00

“Dog. Un viaje salvaje”

Zuzendaria: Channing Tatum



Iñaki Galparsoro Garcia

9. URTEURRENA
2022/06/05

“Gure bihotzetan jarraitzen duzu”

- ZURE FAMILIA -

FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EREMITARIO
ELOGIBAN

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elogiban: Xivilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elogibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **OIHAN!** Hillaren 31n 5 urte bete dozuz-eta! Musu haundi bat danon eta, batez be, zure anai Manexen partez.



Zorionak, **NAHIA!** Gure sorgintxuak atzo 4 urte bete zittuan! Patxo mordua etxeuon partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **DAVID,** astelehenian urtiak bete zenduazena-eta. Besarkada haundi bat maite zaittuen jendiaren partez.



Zorionak, **IZARO,** domekan 14 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Eder eta Aiurren partez.



Zorionak, **JONE,** atzo 4 urte egin zenduazena-eta. Musu haundi bat etxeuon partez.



Zorionak, bikote!!!! **SABINAK** (maiatzaren 23an, 10 urte) eta **ANTONEK** (atzo, 7 urte) urtiak bete dittue-eta. Patxo asko etxeko guztion partez.



Zorionak, **IZARO** (etzi 11 urte) eta **AIORA** (eguenian 3 urte), urtiak beteko dozuez-eta. Musu haundi bat etxeuon eta, batez be, Landerren partez.

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

B1, B2 eta C1 (EGA) mailako ikastaro trinkoa UZTARLEAN (80 ordu)
AUTOIKASKUNTZA IKASTAROAK (erdi presentzialak) uztailetik irailera
2022-23 ikasturterako
AURREMATRIKULA ZABALIKI! %50ko deskontua

Sostoa 1, 1. solairua
943 201 379 eibar@aek.eus

Zure publikitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

tartak
enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Jardifieta kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Dena kanpora begira. 673802614.

1.2. Errentan

- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentzietan. 667060292.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Minusbaliatuentzat egokitua, igogailuarekin 0 kotan. 671101439. Carmen.

- Logela hartuko nuke alokairuan. Kontratuarekin. 632088660.
- Pisua hartuko genuke alokairuan. 3 logelakoa. 2 heldu eta 2 umeentzat. Lan egonkorra, kontratuarekin. Erreferentzietan. 604120104.
- Donostian etxebizitza alokagai abuztuko azken hamabostaldian: 17tik 31ra. Ondarreta hondartzatik bost minutura. 3 logela, bainugela. Berriztuta, terraza itsas bistekin. Wifia eta igogailuarekin. 699027734.
- Etxebizitza alokagai Deban udarako, hilabeteka. 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsaldez).
- Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (gara-jea aukeran). 2019an guztiz erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 678222229.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokala alokatu edo erosiko nuke zezen-plaza inguruan. Edozein egoeran dagoela. 609885710.
- Lursail/terreno bat erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 669176108. Natalia.

3.2. Errentan

- Garaie itxi handia alokagai Eibar erdian, Unzaga Plaza hotelaren ondoan. 688669993.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak

- zaintzeko (ziurtagiriarekin). 692932984.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631143972.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631787654.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 666685184.
- Neska eskaintzen da goizez umeak eskolara eramateko eta arratsaldez jasotzeko. 649025614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauez ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 632419944.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez edo gauez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Erreferentzietan. 610667535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta garbiketarako egiteko. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 642855788.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia bulego eta kontabilitatean. 603710317.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko udaran. 662574424.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Baita oporraldietan ere. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak

siak edo umeak zaintzeko. 643568742.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 642395031.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). 631425686.
- ## 4.2. LANGILE BILA
- Elgoibarren interna (50 urtetik gorakoa) behar da baserri batean. Autoa eta zaintzaile-ziurtagiriarekin. 653723095. Pili.
 - Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum Eibarko 331 postakutxatilara.
 - Kamarera/o behar da Jaiky tabernarako. 695690784. Ana.
 - Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com
 - Kamarera/o euskalduna eta esperientziaduna behar da pintxo taberna batean. 661955980.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637587811.



osasun gida

Kirol Medikuntza

ZERBITZU MEDIKOAK

ATHLETE FISIOTERAPIA ETA KIROL BERREGOKITZEA

- ONARRIZKO MEDIKUKIROL AZTERKETA
- ESFORTZU PROBA KLINIKOA
- ESFORTZU KIROL PROBA



EIBAR Indalezio Oyarzunen, 1 - beheko 6
 Oribia hartzeko edo informazio jasotzeko:
 cvfisiologiadeportiva@gmail.com
 943 05 78 98

Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**
 838200124
 kolegiatu zerbaki



T. Etxebarria, 5 - 1. A
 943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGO
 T. ORTOPEIDICO



Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Logopedak

AHOTS-LAN
 LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
 943 202691
 ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua
 Degluzio atipikoa / Disfonia
 Ikaste-arazoak / TDAH
 Berba arazoak / TEA / Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Bidebarrieta, 48
EIBAR
 943 203050

Erdiko Kale 54
ARRASATE
 943 799746

PODOLOGOA
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

Psikologoak

AMETS
 PSIKOLOGIA KLINIKOA
 ETA OSASUN ZENTROA



Bidebarrieta, 27 - B, 1. solairua, 9. beheko
 www.ootreamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoan
 PSIKOLOGOA (2019/191) iragarpen - Master P.N.L.
 Tel. 675 70 68 07 - Trainer

Okulistikak

Recalde
 Clinica Oftalmológica
 Oftalmologi Klinika




•Kataraten kirurgian
 espezialistak.

R.P.S. 204/13



Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA



**Maidor
Lopez
Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Beheko B
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOTERAPIA ZENTRUA



HAUR, NERABE ETA
 HELDUENTZAKO
 PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
 Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
 www.arratepsicoterapia.com

Psikologia klinika eta
 Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
 GORDEZ ETA ARRATSALEZ
 Urkizu, 13 - beheko
 Tel. 943206823 / 686859023



943-206776



Eibarko Musika Eskola
Escuela de Música J.B. Guisasola



2022-2023

ikasturterako

**Matrikulazio
epea zabalik**



eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/musika-eskola

Ezagutu gaitzazu!



[Facebook.com/eibarkomusikaeskola](https://www.facebook.com/eibarkomusikaeskola)



[Instagram.com/eibarkomusikaeskola](https://www.instagram.com/eibarkomusikaeskola)



EIBARKO UDALA